



## **JUSTIZIA ADMINISTRAZIOKO ZUZENDARITZAREN ZIRKULARRA, ZEINAREN BIDEZ ADIERAZTEN DEN ZEIN DIREN JARDUKETA-IRIZPIDEAK, EAEN JUSTIZIA ADMINISTRAZIOAREN ZERBITZURA DIHARDUTEN FUNTZIONARIOEN HURRENGO HAUTESKUNDE SINDIKALETAN**

EAEn Justizia Administrazioaren zerbitzura diharduten langileen hauteskunde-prozesuari dagokionez, jarraibide hauek ezartzen dira prozesua eraginkor izateko irizpidetzat:

### **1.- HAUTESKUNDE MAHAIA:**

Hauteskunde Mahaiak hauteskunde-unitatean hauteskundeak sustatzeko ahalmena duen sindikatu bakoitzeko ordezkari banaren laguntza teknikoa eduki ahal izango du.

Langileen Batzorderako hauteskundeetako hautagai-zerrenda bakoitzak pertsona bat izendatu ahal izango du Mahaian kontu-hartzailtzako lanak egiteko, bozketan eta zenbaketan bertaratzeko.

### **2.- BAIMENAK:**

#### **2.1.- Hauteskunde-aldian.**

Hauteskunde Mahaia osatzen dutenek, titularrek zein –egonez gero– ordezkoek beren funtzioak betetzeko behar duten baimen ordaindua izango dute.

Hauteskunde Unitateak onartutako hautagai-zerrenda bakoitzeko ordezkari batek ere bere jarduera betetzeko ezinbesteko duen denbora hartu ahal izango du, hautagai-zerrendak aldarrikatzen direnetik hauteskunde-kanpaina bukatzen den arte.

#### **2.2.- Bozketa-eguna**

Mahaiko kontu-hartzaile jarduten dutenek baimen ordaindua izango dute bozketa-egunean.

Hauteskunde Mahaia lantokiko herri berean duten langileek boto-eskubidea baliatzeko ezinbestekoa den gutxieneko denbora izango dute. Herri batetik bestera joan behar duten langileek ere ahalik eta denborarik gutxiena izango dute, ezinbestekoa dena, eta gehienez ere ordu eta erdi, betiere denbora hori baliatzeko premia behar bezala egiaztatzen bada, Hauteskunde Mahaiko kideek egindako nahitaezko ziurtagiria aurkeztuta.

Nolanahi ere, boto eskubidea baliatzeko, era ordenatuan eta mailakatuan utzi beharko da lanpostua, zerbitzu-premiei erantzungo zaiela bermatuz egun osoan eta, batik bat,



jendaurreko ordutegian. Lanpostua utzi aurretik, Bulego Judizialeko arduradunari jakinarazi beharko zaio, eta hark oniritzia eman beharko die baimen horiei.

### 2.3.- Hauteskunderen hurrengo eguna.

Hauteskunde Mahaian funtzio efektiboak bete dituztenek eta hautagai-zerrenden kontu-hartzaile aritu direnek bost orduko baimen ordaindua izango dute lanaldian, hauteskundeak egin eta hurrengo egunean. Baimen hori baliatzeko, jarraian zehazten diren bi modalitateetako bat hautatu ahal izango dute:

- Hauteskunderen hurrengo egunean lanera joan, ohiko lanaldia (zazpi ordu eta erdi) edo eskatzaileak duen lanaldia (lanaldi murriztua badu) osatzeko behar den denboran; nolana ere, ordu eta erdi egin beharko du gutxienez derrigorrezko presentziako ordutegi-tartean (zortzi eta erdietatik ordu bi eta erdietara); edo
- Hauteskunderen hurrengo egunean lanera ez joan, betiere zerbitzuaren beharrak behar bezala beteta badaude, eta ohiko lanaldia (zazpi ordu eta erdi) osatu bitarteko gainerako denbora ordutegi malguaren kontura berreskuratu, gehienez ere bost egunean, bozketa egin den hilabetearen barruan, eta egunean gutxienez hogeita hamar minutu berreskuratuta.

Bi kasuetan, gutxienez bost egun lehenago, dagokion eskabidea izapidetu beharko dute, lanpostua duten organoko arduradunari aurrez jakinarazita eta, hala badagokio, denbora zehazki zein egunetan berreskuratuko duten azalduta.

Vitoria-Gasteiz, 2019ko apirilaren 23a.

MARÍA ISABEL GABRIEL BELLIDO  
JUSTIZIA ADMINISTRAZIOKO ZUZENDARIA



EUSKO JAURLARITZA  
GOBIERNO VASCO

LAN ETA JUSTIZIA SAILA  
DEPARTAMENTO DE TRABAJO  
Y JUSTICIA